



siente

# Postontzi

## SOLIDARIOA



**Nori zuzendua:** Familiak

**Gelako jarduera:** 8 - 16 urte (adin bakoitzera egokituta).

**Helburua:** beren familiekin batera Covid-19ak haurrei eta gazteei nola eragin dien jabetzea, eta elkartasun-kanpainarekin kolaboratzera gonbidatzea.

**Garapena:**

Testigantzen bideoak eta bildutako informazio erabiliko dira. Gutun bat emango zaie haur letrarekin idatzita. Gutun horretan Covid-19a nola bizi izan duten azaldu ta egongo da, bai esperientzia negatiboak, bai izan dituzten aukerak (adibidez, eskolara ezin joatea – nire familia gehiago ezagutzera, zaintza,...)

Gutun horiek web orrialdera igoko dira eta txartel bat erantsiko zaie kanpainarako laguntza eskatzeko. Mezua izango da kanpainarekin hainbat modutan kolaboratu daitekeela : kanpaina zabalduz, boluntario gisa, programei laguntza emanaz, diru ekarpenak eginez eta abar.

Bla pertsonaia aurkeztuko da postariz mozorrotuta eta poltsa bat eramango du soinean, gutun batekin ikasle bakoitzarentzat (puntu hau ikasleen adinera egokituko da). Ikasleei "Eraldatzen hasteko prest" kanpaina azaltzeko aprobetxatuko

du eta oso gutun bereziak dakargkiela esango du.

Gutun-azal bakoitzaren barruan **GUTUN BAT** (ikasle kopurua dela eta gutunak errepikatuta egongo dira) eta **TXARTEL BAT** egongo dira, eta etxera eramango dituzte familiarekin irakurtzeko.

Etxean gutunaren inguruan hausnartuko dute eta erantzun bat idatziko dute (gero gelan komentatuko da), norberak pandemia nola bizi izan duen eta gutunean azaltzen den egoeran laguntzeko berari eta bere familiari zer bururatu zaien azalduz.

Ikastetxean postontzi bat eraikiko da maila bakoitzerako (jarduera bat izan daiteke) eta Postontzi solidarioa deituko da. Ikasleek hara "bidaliko" dituzte gutunak.

Gelan, zein gutun tokatu zaien eta nola erantzun dioten azalduko dute eta, modu anonimoan, gutun-azalak postontzian sartuko dituzte berriro ekarpen ekonomikoarekin batera.

**Materiala:**

Gutun-azalak  
Web orriko gutunak  
Web orriko txartelak  
Kartulinazko postontzia